



26 eta 4na urte daramatzagu, hurrenez hurren, DYA-n. Azpeitiko basean 12 lagun inguru gaude eta batzbesteko adina 30 urte da. Era guztietako larrialdiak betetzen ditugu: errepide istripuak, larrialdi sozialak (telealarma, etxeetako gaisoak artatu), sokamuturra, kirol jarduerak, rallya, krossa, aizkolari probak... rastreoak ibaian eta mendian, kontzertuak, hondartzan sorosle lanak... Baina, 112ra, deitu eta anbulantzia behar ezkeru, enpresa pribatuak daude, Gipuzkoa mailan behintzat. DYA-ko

**Jexuxmari Arrieta, Itxaso Aizpurua eta Ramon Lamariano**

## DYA-ko bolondresak

base guztiek bolondres lanarekin funtzionatzen dute. Ordutegiak eta bete beharreko lanak ematen dizkigute eta libre bagaude izena ematen dugu. DYA barruan sail desberdinak daude eta Azpeitiko kasuak bezalaxe mugitzen gara inguruko beste herrietakoak kubritzera. Nolanahi ere, jendea konbentziturik dago egiten duguna kobratuta egiten dugula. Lan honetan aritzeko gustatu egin behar zaizu, bete egin behar zaitu. Zenbait kasu eta egoera oso gogorak dira baina besteei laguntzeak ematen duen satisfazioak bultzatzen zaitu lanean jarraitzera.

Gero, zenbait jenderekin sekulako pazientzia eduki beharra dago. Festetan jendea edanda dago eta, berdina zaie zu lanean bazaude. Pertsona bat hospitalera generaman eta jendea errepide erdian gelditzen zaizu adarra jo-

tzeko. Anekdotarik ere ez zaigu falta: behin zerbitzu batetik bueltan, ertzaintza patrulla aurkitu genuen, errepidetik ardiak ezin baztertuta. Azkenean, gu beraiei laguntzen jardun ginen, ardiak errepidetik kendu arte... Orain gutxiago, baina garai batean "grazioso" ateraldi aso izaten zen gezurrezko deiak eginez. Garai batekin alderatuta, orain boluntario falta handiagoa dago. Guk ikastaroak eta formakuntzak antolatzen ditugu. Iazko ikastaroa, ordea, bertan behera geratu zen, taldea ez zelako osatu. Beraz, jendea animatzeko formularen bat asmatu beharko da. Bestalde, aipatu nahi dugu beti eduki dugula Udalarekin harreman ona. Eta inauguratu dugun base berriarekin ere oso gustura gaudela. Hutsune gisa aipatuko genuke, eskolan oinarritzeko artapenak ez ematea.